



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Bizkaiko Batzar Nagusiek ekonomia bizibarritzeko erakundeen arteko akordioa berronetsi dabe

Bilbon, 2013ko urriaren 18an.

Gaur Bilbon alkartu dan Bizkaiko Batzar Nagusietako Erakundeen arteko Batzordeak, Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako Foru Aldundien artean, 2013ko ekitaldian Euskadiko defizit marjina barriaren partekatutako erabileraren kontura ekonomia bizibarritzeko jarduketak eta inbertsino proiektuak aurrera eramateko sinatutako erakundeen arteko akordioa berronetsi dau. Akordioaren helburua, ekonomia bizibarritzeko eta enplegua sortzeko jarduketak eta inbertsino proiektuak martxan jartea da. Akordio horri esker, lau erakundeek konpromisoa hartu dabe, helburu horretara 180 milioi euro bideratzeko. Diru horren erdia Bizkaian inbertituko da, Eusko Jaurlaritzako aurrekontuetatik urtengo diran 63 milioi euroei eta Bizkaiko Foru Aldundiak jarriko dituan 27 milioi euroei esker.

Bizkaian egingo diran inbertsino garrantzitsuenak proiektu honeetara bideratuko dira: Bilboko Metroaren 3. lineara; Zamudioko Teknologia Elkartegia zabaltzera, aeronautika sektorerako Automatizazio Zentro Aurreratuaren eraikuntzagaz; Ur Partzuergoagaz eta URA agentziagaz batera garatu beharreko lan Hidraulikoetara; eta Gernikan Enpresa eta Barrikuntza zentro bat sortzera. Partiden beste parte bat trenbideko azpiegitura batzuetara, EuskoTrenentzat unidateak erostera, arrantza azpiegiturretara, merkataritza, turismoa, nekazaritza eta arrantzea sustetako programetara, Sestaon egingo dan etxebizitza sustapenera eta BIOEF proiektuaren, Barrikuntza eta Ikerketa Euskal Fundazioaren, garapenera bideratuko da. Akordioaren aurkezpenean, Jose Luis Bilbaok, Bizkaiko Aldun Nagusiak, adierazo dau “hasiera-hasieratik argi genduala ze proiektutara bideratu behar zan dirua, eta Eusko Jaurlaritzagaz batera aurrera eroan beharreko proiektuak izan behar zirala”.

Erakundeen arteko akordioa Euzko Abertzaleak eta Bizkaiko Popularrak taldeen aldeko botoakaz eta EH Bildu eta Socialistas Vascos taldeen abstentzinoagaz berronetsi da. Azken talde bi horreek kritikau egin dabe inbertsinoen artean Ermuko saihesbideko beharrak hasteko partidarik ez egotea, Iñaki Egañaren, Socialistas Vascos taldeko bozeroalearen, ustez, bide azpiegitura hori “lehentasunezkoa” dalako. Aitor Torrek, EH Bilduko bozeroaleak, “lekuko garapen eta enpleguaren sustapen proiektuetara bideratutako inbertsinorik” ez dagoala azpimarratu dau.

Ermuko saihesbideari jagokonez, Jose Luis Bilbaok esan dau “2013an proiektuari hasierera emoteko partida bat sartzea oso ondo geratuko litzatekela politikaren ikuspuntutik, baina hori ardurabakotasunkeria izango litzatekela, obra osoa bukatuko dala bermatu ezin badogu”. Holan, adierazo dau 2014ko aurrekontuei buruzko eztabaida saioa “izango dala urte bat baino gehiagoko proiektu hori sartzea edo ez sartzea erabagiteko unea, proiektuaren lehenengo faseak lau urteko burutzapeneko epea eta 90 milioi euroko inbertsinoa daukalako”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

BIZKAIKO ARGIAK

Lan-saio berean, batzarretako taldeek, joan dan garagarrilaren 24an eskinitako omenaldian, terrorismoaren biktimei “Bizkaiko Argia” aintzatespena emoteari buruzko eztabaidea izan dabe. Talde Popularrak aurkeztu dau ekimena, eta Jose Luis Bilbaori aurpegiratu deutso “sari hori faltsutu egin dauela, frankismoak eragindakoak moduko beste biktima batzuk sartuz eta apirilaren 24ko osoko bilkureak emondako agindua bete barik itxiz”. Esther Martínez talde popularreko bozeroaleak, “ETAk Bizkaian hil dituan 204 pertsonak” gogoratu ditu, eta bere eretziz, garagarrilaren bukaeran Foru Jauregian ospatutako ekitaldia “bidebakokeria eta terrorismoaren biktimen aurreko errespetu falta” izan zan.

Jose Luis Bilbaok adierazo dauenez “omenaldi ekitaldi inklusiboa, bateragarria, egin gura izan genduan, ETA, GAL, BVE taldeen eta talde parapolizialen biktimei eta baita frankistek fusilautako Aldundiko langileei gure aintzatespena erakutsiz”. Ildo berari jarraituz, Lorea Bilbaok, Euzko Abertzaleak taldeko bozeroaleak, “EAJ-PNV-k beti erakutsi dauela giza eskubideen eta terrorismoaren biktima guztien aurreko konpromisoa” azpimarratu dau. Bere eretziz, “penagarria, errazoi batzuk edo beste batzuk dirala eta, garagarrilaren 24ko ekitaldi haretan, talde politiko guztiak egon ez izana izan zan, biktimei eta euren senideei alkartasuna eta laguntzea erakutsiz”.

ETXE KALERATZEAK ETA AKORDIOAK

Foru Aldundiko arduradun nagusiak EH Bilduk egindako galderari be erantzun behar izan deutso. Talde horrek Aldun Nagusia batzordera etortea eskatu dau “Foru Aldundiko ordezkariak BBK erakundean, etxetik kaleratzeen gaian, aurrera eroaten dituen erespideak eta defendiduten dituen politikak zeintzuk diran argitu daian, Aldundia, gaur egun Kutxabaneko parte dan kutxaren sortzaileetakoa dan neurrian”. Jose Luis Bilbaoren eretziz, “Kutxabank, errazoi bat edo beste dala eta, euren hipotekak ordaindu ezin dituen pertsonakaz akordio gehien lortzen dauen erakundea da”. Horrez gain, Irune Sotok, EH Bilduko ordezkariak, Bizkaian euren etxeetatik kaleratutako pertsonen buruz aurkeztu dituan zifrak ez dirala zuzenak esan dau.

Beste alde batetik, batzordeko taldeek, aldeko 10 botogaz eta EH Bilduren abstentzinoagaz, PP-k aurkeztutako Arau Proposamen bat onartu dabe, Bizkaiko Lurralde Mugaketei buruzko abenduaren 5eko 9/2012 Foru Araua aldatzeko, Bizkaiko armarrietan edo banderetan egiten diran aldaketak, “egin beharreko txosten heraldikoaren edo vexilologikoaren bitartez” egiaztutako errazioetan oinarrituko dirala bermatzeko. Horrez gain, EH Bilduren abstentzinoagaz, baita be, Aldundiari, Foru jakinarazpenetan QR kodeak sartu daizan eskaerea egiteko PP-ren beste proposamen bat be onartu da.

Bukatzeko, EH Bilduk aurkeztutako ekimen bi atzera bota dira. Lehenengoan, eskaerea egiten jakon Aldundiari, kontzertutako zerbitzuengaitik enpresei edo erakunde pribaduei (egoitzei, eguneko zentroei...) ordaintzen deusien tarifatik, greba egunetan langileei ordaintzen ez jaken soldataren partea kendu daian. Bigarrena be ez da onartu, Euzko Abertzaleak eta Bizkaiko Popularrak taldeen kontrako botoakaz, eta bertan eskaerea egiten jakon Eusko Jaurlaritzari, ginekologia zerbitzua barrero martxan jarri daian Ondarroako, Lekeitioko eta Markinako osasun



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

etxeetan, EH Bilduren eretziz, “azken hilebeteetan zerbitzu horrek murrizketa larriak izan ditualako”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Las Juntas Generales de Bizkaia avalan el acuerdo interinstitucional de reactivación económica

Bilbao, a 18 de octubre de 2013.

La Comisión Institucional de las Juntas Generales de Bizkaia, reunida hoy en Bilbao, ha avalado el acuerdo interinstitucional entre el Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales de Bizkaia, Álava y Gipuzkoa, para el desarrollo de actuaciones de reactivación económica y de proyectos de inversión con cargo a la utilización compartida del nuevo margen de déficit para Euskadi en el ejercicio 2013. El objeto del acuerdo es poner en marcha actuaciones y proyectos de inversión para la reactivación económica y la creación de empleo. Gracias al mismo, las cuatro instituciones se comprometen a aportar 180 millones de euros para este cometido. La mitad de este dinero se invertirá en Bizkaia, gracias a los 63 millones que saldrán de los presupuestos del Ejecutivo vasco y a los 27 millones que emanarán de la Diputación vizcaína.

Las principales inversiones en Bizkaia irán destinadas a proyectos como la Línea 3 de Metro Bilbao, la ampliación del Parque Tecnológico de Zamudio con la construcción de un Centro Avanzado de Automatización para el sector aeronáutico, obras hidráulicas a desarrollar junto con el Consorcio de Aguas y la agencia URA, y la creación de un centro de Empresas e Innovación en Gernika. Otras partidas irán dirigidas a materializar distintas infraestructuras ferroviarias, adquirir material móvil para Euskotren, desarrollar infraestructuras pesqueras, programas de fomento del comercio, turismo, agricultura y pesca, promover viviendas en Sestao y desarrollar el proyecto BIOEF, la Fundación Vasca de Innovación e Investigación. En la presentación del acuerdo, el Diputado General de Bizkaia, José Luis Bilbao, ha afirmado que “teníamos claro desde un principio los proyectos a los que teníamos que destinar el dinero y que debían ser proyectos compartidos con el Gobierno Vasco”.

El acuerdo interinstitucional ha sido ratificado en comisión con los votos a favor de los grupos Nacionalistas Vascos y Populares Vizcaínos, y la abstención de los representantes de EH Bildu y Socialistas Vascos, que han criticado que las inversiones no incluyan una partida para iniciar las obras de la variante de Ermua, una infraestructura viaria que Iñaki Egaña, portavoz del grupo Socialistas Vascos, considera “prioritaria”. Por su parte, Aitor Torre, portavoz de EH Bildu, ha echado en falta también “inversiones destinadas a proyectos de desarrollo local y fomento de empleo”.

Sobre la variante de Ermua, José Luis Bilbao ha asegurado que “incluir una partida para iniciar el proyecto en 2013 quedaría políticamente bien pero sería una irresponsabilidad, si no podemos garantizar la financiación de la obra en su totalidad”. En este sentido, ha añadido que en el debate de los presupuestos de 2014 “será el momento de incluir o no este proyecto de carácter plurianual, que tendría un plazo de ejecución de cuatro ejercicios y una inversión de 90 millones de euros en su primera fase”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

ILUSTRES DE BIZKAIA

En la misma sesión, los grupos junteros han mantenido un debate sobre la distinción de Ilustres de Bizkaia a las víctimas del terrorismo en el homenaje ofrecido el 24 de julio por la Diputación. La iniciativa partía del grupo popular, que ha acusado a José Luis Bilbao de “adulterar este galardón, incluyendo a otras víctimas como las del franquismo, pervirtiendo así el mandato del pleno del 24 de abril”. La portavoz de los populares, Esther Martínez, ha recordado a las “204 personas asesinadas por ETA en Bizkaia” y ha calificado como “un atropello y una falta de respeto a las víctimas del terrorismo” el acto celebrado en el Palacio foral a finales de julio.

José Luis Bilbao ha asegurado que “quisimos hacer un acto de homenaje inclusivo, que reconociera a las víctimas de ETA, del GAL, del BVE, de los grupos parapoliciales, así como a las personas trabajadoras de la Diputación fusiladas por los franquistas”. En esta línea, la portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, Lorea Bilbao, ha subrayado que “el PNV siempre ha estado comprometido con los derechos humanos y con todas las víctimas del terrorismo”. En su opinión, “lo lamentable, por unas razones u otras, es que no estuvieran aquel 24 de julio todos los grupos políticos acompañando a las víctimas y familiares”.

DESAHUCIOS Y ACUERDOS

El máximo responsable del Gobierno foral ha tenido que responder también a EH Bildu, que había solicitado su comparecencia para aclarar “cuáles son los criterios que siguen y las políticas que defienden los representantes de la Diputación Foral en materia de desahucios en la BBK, en la medida en que es una institución fundadora de la caja que forma parte de Kutxabank”. Para José Luis Bilbao, “Kutxabank es la entidad que más acuerdos alcanza con aquellas personas que, por diferentes motivos, no pueden hacer frente al pago de sus cuotas hipotecarias”. También ha rebatido las cifras de personas desahuciadas de su vivienda en Bizkaia aportadas por la portavoz de EH Bildu, Irune Soto

Por otro lado, los grupos junteros han aprobado con 10 votos a favor y la abstención de EH Bildu, una Proposición de Norma presentada por el PP para la modificación de la Norma Foral 9/2012, de 5 de diciembre, de Demarcaciones Territoriales de Bizkaia, con el fin de garantizar que los cambios en escudos o banderas de Bizkaia se fundamenten en razones acreditadas “mediante el correspondiente informe heráldico o vexilológico”. Asimismo, también han dado su aprobación, también con la abstención de EH Bildu, a otra proposición del PP para instar a la Diputación a introducir códigos QR en las comunicaciones forales.

Finalmente, se han rechazado otras dos iniciativas, presentadas por EH Bildu. La primera solicitaba que la Diputación restara de la tarifa que abona a empresas o entidades privadas por servicios concertados (residencias, centros de día...), la parte del salario que se deja de pagar a las trabajadoras y trabajadores durante las jornadas de huelga. La segunda, que también ha sido rechazada con los votos de Nacionalistas Vascos y Populares vizcaínos, estaba dirigida a solicitar al Gobierno Vasco que restablezca el servicio ginecológico de los centros de salud de



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Ondarroa, Lekeitio y Markina, que, en opinión de EH Bildu, “se ha visto seriamente recortado en los últimos meses”.